

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Giza-legezko espetxe-politikaren alde, bake eta adiskidetze prozesua helburu

ELAren ustez estatu espainiar eta frantsesak euskal preso politikoko aplikatzen duen espetxe-politika bidegabea da, gizalegearen eta zuzenbidearen aurkakoa.

- 600dik gora preso barreiatuta daude Espainia eta Frantziako lurraldeetan zehar, beren jatorritik urruntze aldera; honek kalte egiten die, presoei ez ezik, hauen senide eta adiskideei.

- Legeari muzin egiten diote gaixotasun sendagaitz larriak dituzten presoak askatzeari dagokionez.

- Gainera, zigorrak luzatzen tematzen dira, Parot doktrina delakoa aplikatuz, Europako Giza-Eskubideen Auzitegiak aho batez ebatzi duen arren jokabide horrek urratu egiten duela legalitate printzipioa eta Europako Giza-Eskubideen hitzarmenak jasotzen duen askatasun eta segurtasuna izateko eskubidea.

Espetxe-politika honen xedea mendekua da, eta PPK zein PSOEk 2000. urtean sinatu zuten Itun Antiterrorista hartzen du oinarritzat; itun hau, hain zuzen, berretsi egin zuten konfederazio sindikal espainiar eta frantsesek 2001eko martxoan. Akordio honetako oinarri errepresibo, antidemokratiko eta antisubiranistekin bat datoz, zoritxarrez, estatu-aparatu guztiak, gobernu frantsesa eta Espainiako erakunde eta komunikabide mordo bat. Itun haren mamia -orain agerian geratu da, ETAk bere ekintza armatuak behin betiko baztertu dituenen-bortizkeria arbuizatzea baino askoz gehiago zen.

Halaber, itun hori indarrean dagoenez, espainiar gobernuak ukatu egiten du ETAk duela urte eta erdi aldebakarretik borroka armatua behin betiko uztea erabaki izanak ireki zuen bake-agertokia kudeatzeko aukera. EL Ak gauza bat nabarmendu nahi du: espainiar eta frantses estatuetakoko gobernuak inoiz ez dute oraingo moduko aukera bat izan izaera politikoa duen arazo hau behin betiko konpontzeko.

Gure iritziz, bestalde, espetxe-politika horrek eta bake-prozesuari ekiteko ukapenak onartu ezineko bi helburu dituzte. Batetik, gatazkaren kontakizun jakin bat inposatzea, soilik alde batek sufritu izan

duena aintzat hartzea eta estatuaren politika errepresiboa legitimatzea. Bestetik, ETAk historian zehar bere legitimazioa izan zuen mugimendu soziopolitiko baldintzatzea, politika normalizatura igarotzen ari den uneotan: kontua ez da bakarrik mugimendu horrek aldebakarreko kontakizun hori modu akritikoan ontzat ematea; gainera, onartu egin beharko luke ere espainiar estatuan trantsizio politikoa "euskal auzia"ri buruz nola egin zen.

ELAren ustez, Itun Antiterrorista indargabetzeko unea dugu hau; gatazkaren konponbideari buruzko pedagogia lantzeko unea, oinarri gisa egia eta justizia dituen adiskidetzea bultzatzeko, eta elkarrizketa politikoa bat hasteko garaia (desarmarekin, presoekin eta exiliatuekin lotuta dauden xehetasun guztiak argitze aldera). Horrekin batera, biktima guztiak aitortzeko taxuzko urratsa ere egin behar dira. Horixe eskatzen du gure herrian gizarteko gehiengo handi batek.

Halaber, giza-eskubideen eta konponbidearen alde mobilizazioak egin behar dira. Zehazki, orain espetxe-politikari buruzko urratsak egin daitezela eskatzen dugu.

Bide horretan, azken urteetan egin izan duen legez, ELAk bere afiliatuei dei egiten die urtarrilaren 12an Bilbon izango den manifestazioan parte har dezaten; deialdiaren goiburua, "Giza-eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira".

Gainera, guztiak animatu nahi ditu hiri eta herrietan hileko azken ostiralean, 28an, euskal preso politikoen eskubideen alde izango diren bilkuretan parte har dezaten.

Urtarrilaren 12an, denok Bilbora!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

URTARRILAK 12 - MANIFA BILBON

La Casilla - 17.30etan

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Por una política penitenciaria humana, por un proceso de paz y reconciliación

ELA considera injusta, inhumana y contraria a derecho la política penitenciaria que los estados español y francés practican con los presos y presas políticas vascas.

- La dispersión afecta a más de 600 presos, que son repartidos por toda la geografía española y francesa, con el objeto de alejarlos de sus lugares de origen, infligiendo un grave perjuicio a los propios reclusos, a sus familiares y a sus amigos.

- Persiste la negativa a excarcelar a las personas presas con enfermedades graves incurables como la ley prevé.

- Y persiste la aplicación del alargamiento de penas, mediante la aplicación de la doctrina llamada Parot, y ello a pesar de que el Tribunal Europeo de Derechos Humanos falló, por unanimidad, que esa práctica viola el principio de legalidad y el derecho a la libertad y seguridad del Convenio Europeo de Derechos Humanos.

Esta política penitenciaria responde a criterios de venganza, y encuentra su legitimación en el Pacto Antiterrorista suscrito por PP y PSOE en el año 2000, que fué refrendado por las confederaciones sindicales españolas y francesas en marzo de 2001. Los postulados represivos, antidemocráticos y antisoberanistas de ese pacto son compartidos, lamentablemente, por todos los aparatos del estado, por el gobierno francés y por un sinnúmero de instituciones, organizaciones y medios de comunicación españoles. Aquel pacto -como se puede comprobar ahora tras el cese definitivo de las acciones armadas por parte de ETA- iba mucho más allá del repudio a la violencia.

La vigencia de ese pacto explica también la negativa del gobierno español a gestionar el escenario de paz abierto por la decisión unilateral de ETA de abandonar definitivamente la lucha armada hace año y medio. ELA quiere llamar la atención sobre un hecho: nunca ningún gobierno de los estados español y francés ha tenido la oportunidad que hoy se presenta para resolver definitivamente este problema de naturaleza política.

Creemos que esa política penitenciaria y esa negativa a abordar un proceso de paz tiene además dos objetivos inaceptables. Por una parte, imponer un

relato del conflicto que considere exclusivamente el sufrimiento de una parte y legitime la política represiva del estado. Por otra, tratar de condicionar el tránsito a la política normalizada del movimiento sociopolítico en el que ETA encontró históricamente su legitimación para que acepte acríticamente, no sólo ese relato unilateral, sino también el modo en que se realizó la transición política en el estado español en relación con la llamada "cuestión vasca".

ELA cree que es tiempo de derogar el Pacto Antiterrorista, de inaugurar una pedagogía de la resolución del conflicto, de impulsar la reconciliación basada en la verdad y la justicia, y de iniciar un diálogo político orientado a resolver todos los aspectos relacionados con el desarme, las personas presas y exiliadas. Asimismo, deben darse pasos efectivos para el reconocimiento de todas las víctimas. Es lo que una inmensa mayoría social reclama en nuestro país.

Creemos que es preciso activar también movilizaciones a favor de los derechos humanos y la resolución. Y en concreto, exigimos ahora que se den pasos concretos en relación con la política penitenciaria.

En ese camino, y como viene haciendo desde hace años cada mes de enero, ELA llama a sus afiliados y afiliadas a participar en la manifestación que se celebrará el próximo día 12 de enero en Bilbao bajo el lema "Derechos humanos, resolución paz. Euskal presoak Euskal Herrira".

Asimismo, anima a todos y todas a participar en las concentraciones que se celebrarán en todas las ciudades y pueblos el último viernes de mes, día 28 de diciembre, por los derechos de los presos y presas políticas vascas.

El 12 de enero, todos y todas a Bilbao!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

12 DE ENERO · MANIFA EN BILBAO

La Casilla - 17.30h